4. GAIA. INFLAZIOA

2. Ariketa

Honako baiezpenak analizatu:

a. Phillips-en kurbak esaten du desenplegua garaia denean inflazioa apala dela eta alderantziz. Desenplegu garaia eta inflazio garaia egon daitezke herrialdean baina inoiz ez biak batera.

b. Inflazio garaia ez bada herrialdearen arazoa, litekeena da nahi bezain desenplegu tasa apala izatea. Hartu behar den neurri bakarra ondasun eta zerbitzuen eskaria handitzea da (adibidez, politika fiskala erabilita).

3. Ariketa

Demagun herrialde bateko Phillips-en kurba horrela adierazten dela:

$\Pi_t = \Pi^i_t + 0{,}1 - 2u_t$

a. Zein da desenpleguaren tasa naturala (un)?

Eta demagun:

$\Pi^i_t = \theta \Pi_{t-1}$

Jo dezagun hasiera batean θ = 0 dela eta hasierako desenplegu-tasa desenplegu-tasa naturalaren berdina dela. " t " urtean gobernuak desenplegu-tasa %3ra jaistea erabakitzen du eta maila horretan modu iraunkorrean mantentzean erabakitzen du.

b. Urte hauetako inflazio-tasa kalkulatu: t, t+1, t+2 eta t+5

c. Aurreko puntuan emandako datuak sinesgarriak al dira? Zergatik? (giltza: kontuan izan jendeak nola eratuko dituen inflazioari buruzko beren espektatibak edo igurikapenak).

Demagun orain t+5 urtean, θ = 1 dela (alegia 0-tik 1-era igotzen dela). Eta gobernuak desenplegu-tasa = %3 izaten mantendu nahi duela.

d. Zergatik igo daiteke θ modu horretan?

e. Zein da inflazio-tasa t+5, t+6 eta t+7 urteetan?

f. Aurreko puntuan emandako erantzuna sinesgarria al da? Zergatik?

4. Ariketa:

Ekonomia bateko Phillips-en kurbaren ekuazioa ondokoa da:

$\Pi_t - \Pi^i_t = 0{,}08 + 0{,}1\,\mu_t - 2u_t$

Nola eragiten du μt –ren balioaren bikoizketa batek desenplegu-tasa naturalean?. Hasierako μt = %20 bada zein da hasierako eta μt bikoiztu ondorengo desenplegu-tasa naturalen balioa?

5. Ariketa

Ekonomia bateko Phillips-en kurbaren ekuazioa ondokoa da:

$\Pi_t - \Pi^i_t = 0{,}1 - 2u_t$; non $\Pi^i_t = \Pi_{t-1}$ (θ = 1)

Demagun t-1 urtean inflazio-tasa = 0 dela. "t" urtean gobernuak desenplegu-tasa %4ean modu iraunkorrean mantentzea erabakitzen badu gobernuak:

a. Kalkulatu t, t+1, t+2 eta t+3 urtetako inflazio-tasak

Orain balizko hau jartzen dugu: langileen erdien lan-kontratuetan indexazio klausula dago

b. Zein da Phillips-en kurbaren ekuazio berria?
c. a. zatiko ariketa errepikatu
d. Nola eragiten du soldaten indexazioak Π eta u-ren arteko erlazioan?
($\Pi t - \Pi t\text{-}1 = -\alpha\,(ut - un)$)

6. Ariketa

Petrolioaren prezioek beherakada nabarmena izan zuten 1990eko hamarkadan.

a. Zein izan zen bere eragina desenpleguaren-tasa naturalean?

7. Ariketa

Okun-en Legearen ondoko adierazpena erabili (AEBetako ekonomiarena) galderak erantzuteko:

$ut - ut\text{-}1 = -0{,}4\,(gyt - \%3)$ eta $ut\text{-}1 = \%6$

a. Kalkulatu desenplegu tasaren urtearteko aldaketa gyt-ren balio desberdin hauentzat:
%4, %5 eta %6. Nola aldatzen da desenplegu-tasa honen arabera?.
b. Zer gertatzen da gyt = %3 denean?
c. Espainiarako kalkuluak ondoko Okun adierazpena iradokitzen dute 1977-1999 urtealdirako:
$ut - ut\text{-}1 = -0{,}87\,(gyt - \%3{,}2)$ Aldera ezazu AEBetako ekuazioarekin.

8. Ariketa

Eskari agregatuaren erlazioa erabili ondoko galderak erantzuteko
a. Demagun inflazio-tasa %3 dela, kalkulatu gyt diru kantitate nominalaren hazkundearen balio hauentzat: %7, %5, %3 eta %1. Zein da aldaketaren esanahia?
b. Orain demagun gmt %5 dela, kalkulatu produkzioaren hazkunde-tasa inflazioaren ondoko balioentzat: %6, %4 eta %2. Zein da aldaketaren esanahia?

9. Demagun ekonomia batean parametro hauek daudela hasierako urtean (t=0):

$\Pi = \%20$
$u = \%5$
$un = \%5$
$\beta = 0{,}4$
$\alpha = 1$
$\bar{g}y = \%3$
$gy = \%3$
eta $\Pi t\,i = \Pi t\text{-}1$
Egoera honetan Banku Zentralak inflazioa %4ra jaisteko diru-politika erabiltzea erabakitzen du hurrengo lau urtetan.
a. Kalkulatu Banku Zentralaren gm, desinflazioaren hasiera garaitik (0 urtetik) 6. urtera arte,
inflazioaren jaitsieraren sekuentzia honakoa bada (1 urtea: %16; 2 urtea: %12; 3 urtea: %8; 4,5 eta 6 urteak: %4).
b. Zer gertatzen da inflazio eta gmt alderatzen baditugu epe erdian? Eta zer gertatzen da desenplegu-tasarekin epe erdian? Eta desinflazio-prozesuan zehar zein da u-ren egoera?
c. Desinflazio-prozesua urte betean eman izan balitz (0 urtetik 1 urtera artean), zein izango zen desenplegu-tasaren bilakaera?